



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 29a

59. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Kontu Irekiei buruzkoa. EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek aurkeztua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Estellerriaren garapen ekonomiko eta sozialaren egoerari eta etorkizunari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxebizita Alokairuko Poltsan sartzeko baldintzak alda ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Beriaingo Ikastetxe Publikoaren egungo egoerari eta ikastetxe bat eraikitzearen komenigarritasunari buruz. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kendutako aparteko ordainsaririk falta dena ordain dezan. Sergio Sayas López jaunak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du kolpe militarren eta ondorengo diktadura frankistaren biktima guztiekiko bere elkartasuna. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egoki iritzitako neurri guztiak susta ditzan funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztien erabateko doakotasuna eta unibertsaltasuna lortzeko. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, NUPeko errektoretza-taldea premiatzen da ez dezan ken seihilerako matrikula Nafarroako Unibertsitate Publikoan, ez dezan ezar sekuentzialtasun-formula eta tasa akademikoak berri-
kus ditzan. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (13. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baititu “Gatazkarik gabeko Teknologia” kanpaina eta mineralen merkataritzari buruzko etorkizuneko europar araudia dela-eta Europako gizarte zibilak egiten dituen erreibindikazioak. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuaiatu egiten baititu 2016ko apirilaren 19an Burlatan egindako atxiloketak. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu 2013ko abenduaren 12an onetsi zuen adierazpen instituzionala, erakunde publikoak premiatzen zituena Nafarroako etxeetan ETBren emisioak ikusi ahal izatea ahalbidetu zezaten. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten baitu osasunaren babesarekin eta Konstituzioan osasuna eskubide subjektibo gisa jasotzearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Reina Sofia Ospitaleko larrialdi zerbitzuan 2016ko apirilaren 18an gaixoei emandako zerbitzuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, A-68 autobideko 83. eta 116. kilometro-puntuen artean nekazariak beren lurretara iristeko sarbideei buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, “Panamako paperei” buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Tuterako Osasun Barrutian 2010etik 2015era egindako inbertsioari buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, hizkuntza- eta zientzia-gaitasunak direla-eta Hezkuntza Departamentuak egiten dituen proba diagnostikoei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi darabilen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzetan C1 maila daukaten irakasleentzako lanpostuetarako deialdia egin ahal izateko araudi-aldaketari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Lan-eskaintza Publikoko desorekak konpontzeko den funtzionario erretiratuen ordezkatzetasa dela-eta Hezkuntzako kontseilariak egindako eskariari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Lanbide Heziketako erdi mailatik goi mailara igarotzea, titulazioa eta sarbidea, Batxilergoko 2. maila errepikatzea eta DBHko 4. mailako ibilbideak direla-eta Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntzako ministroari egindako eskariari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zer txosten tekniko eta juridikotan oinarrituta hartu duen Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko erabakia. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kontu Irekiei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

I

Kontu irekiei buruzko foru lege honek Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legearen osagarri izan nahi du. Bi arau horien oinarrian dago administrazio publikoen dokumentuetarako, artxiboetarako eta erregistroetarako irispide-eskubidea, zeina Espainiako Konstituzioaren 105. artikuluan jasota baitago. Halatan, jada 11/2012 Foru Legearen 34. eta 35. artikuluetan Foru Komunitateko Administrazioari argi eta garbi agintzen zaio bultzatzea eta sustatzea herritarrek afera publikoetan parte hartzea.

Azken urteotan, tamalez, ustelkeria politikoko eta baliabide publikoen erabilera okerreko hainbat gertakari bizi izan ditugu, eta hortaz ezinbestekoa da demokrazia eraberritzeko neurri berriak ezartzea. Horien artean, gardentasunak alde aurreko eta funtsezko zeregina betetzen du, demokrazia-ren kontzeptuaren berezko osagaia den aldetik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren antolamenduaren taxutze berri bat eginez, 11/2012 Foru Legea onestearekin hasitako bidetik.

Kontu Irekien Foru Lege hau, hain zuzen ere, 11/2012 Foru Legearen osagarri nahitaezkoa izatera dator. Haren terminologia bera erabilita, 11/2012 Foru Legearen 2. artikuluan ezarritako aplikazio-eremuan sartzen diren subjektuen banku-kontuak "Informazio Publiko" gisa sailka daitezke, artikulua horretan adierazitako entitateen eta erakundeen esku dauden edukiak edo dokumentuak direlako eta xede publiko bati erantzuten diotelako, nola baita horien funtzionamendu ekonomikoa eta aurrekontu-betetzea.

11/2012 Foru Legeko III. tituluan informazio publikoa eta informazio publikorako irispidearen mugak direla-eta egiten den definizioari jarraituz, gure ustez ezinbestekoa da herritarrentzako irisgarri dagoen informazio horretan banku-kontuak sartzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, haren menpeko erakunde publikoen, sozietateen eta enpresa publikoen, partzuergoen, fundazioen eta 11/2012 Foru Legearen esparru subjektiboan aipatzen diren zuzenbide publikoko gainerako entitateenak. Ildo horretan berean, aintzat hartu behar dugu informazio publiko oro izan beharko litzatekeela, printzipioz, irisgarria, halako moduan non ezin izanen litzatekeen ukatu beste eskubide edo interes batzuk babesteko beste ezertarako, informazio publikorako irispide-eskubidea baliatzeari dagokionez 11/2012 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritako mugen arabera. Kasu horiek, ordea, a priori ezin zaizkio aplikatu foru lege honek kontu irekietarako ezarri nahi duen kontzeptuari.

Estatu-mailan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen hitzaurrean jasotzen da gardentasunak zer-nolako garrantzia duen administrazioaren eta publikoa denaren kudeaketan; izan ere, Gorte Nagusiek onetsitako lege horrek xede du oinarri material batzuk ezartzea, Espainiako Konstituzioaren 9.2 eta 23.2 artikuluetan parte-hartze politikoari buruz eta 20.1 artikuluan informaziorako oinarrizko eskubideari buruz jasotzen diren xedapenak betetze aldera. Halatan, Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak berak jada ezartzen zituen gardentasun hori lortzeko lehen urratsak, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeaz edo Sektore publikoaren informazioa berrerrabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legeaz gain.

Informaziorako eskubide generiko hori, zeina Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 19. artikuluan jasotzen baita, orobat zertzen da Europako Kontseiluak agintari publikoen esku dagoen informaziorako irispidea dela-eta 1981ean emandako Gomendioan eta Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruz Europako Kontseiluak 2009an onetsitako Hitzarmenean. Gardentasun eta irispide eskubide eta kultura horrek, etika, logika eta koherentziagatik, administrazio publikoetako diruzaintzaren egoerari buruzko informazioa jasotzen hasi behar du, eta, ondorioz, hura gordailutzen eta erregistratzen deneko kontuei buruzkoa ere bai, aprobetxatuta, halaber, informazio- eta komunikazio-teknologiaren arloko aurrerabideak jada ahalbidetzen duela modu ulergarri eta errazean baliatu ahal izatea informazio publikorako irispide-eskubide hori.

Diru publikoa –zeina nafarrena baita– gordailutzen den banku-kontuetarako irispidea izatea da Administrazioaren gardentasunaren bermerik handiena, bai eta tresnarik eragingarriena ere ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta botere publikoek beren kudeaketari buruz eginiko kontu-ematea eraginkorra izan dadin sustatzeko.

1. artikulua. Kontu irekiak.

1. Foru lege honen bidez deklaritzen da irekiak eta irisgarriak direla Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontu guztiak, bai eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 2. artikulua esparru subjektiboaren barruan sartzen diren erakunde, agentzia eta entitateen kontu guztiak ere.

2. Kontu ireki eta irisgarria da edozein partikularrek banku- edo finantza-entitate batean bereak dituen kontuen modu eta baldintza beretan kontsulta daitekeena –formatu digitalean nahiz sukurtal edo bulego batera bertarata–.

3. Informazio publikorako irispide-eskubide horrek ez du barne hartzen kontuarekin operazioak egiteko aukera.

4. Eskubide horren mugak dira Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 1eko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren ondoriozkoak nahiz daturen baten izaera sekretua espresuki ezartzen duen beste edozein arauk ezarritakoaren ondoriozkoak.

2. artikulua. Kontu publikoak.

1. Arestiko artikuluan xedatutakoa egingarria izan dadin, arau honen esparru subjektiboan jasotako erakunde, kontseilu, agentzia eta gainerako entitate guztiek publiko egin beharko dituzte beraien titularrak direneko kontuak eta kontu horien saldoa.

2. Betiere, kontu bakoitzaren honako datu hauek jaso beharko dira:

a) Kontu edo kutxa mota.

b) Izena.

c) Titulartasuna.

d) Kokalekua eta identifikazioa.

e) Banku-, finantza- edo kreditu-entitatea eta, kasua bada, sukurtsala, eta kontu-zenbakia (IBAN kodea). Halere, segurtasun-arrazoiak direla-eta, kontu-zenbakia behar bezala kodeturik erakutsiko da, halako moduan non kontuaren identifikazioko lehendabiziko lau eta azken lau digituak soilik argitaratuko baitira.

f) Kontuari lotutako identifikazio fiskaleko zenbakia.

g) Guztizko saldoa.

h) Nafarroako Gobernuak ezartzen duen beste edozein.

3. Informazio argitaratua hiruhileko bakoitzaren azken egunean eguneratuko da, eta aurreko hileko azken eguneko balio-data adieraziko du.

3. artikulua. Argitaratze-lekua.

Foru lege honetan aurreikusitako gardentasun-betekizunei lotutako informazio guztia argitaratuko da Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Atarian, Gobernu Irekiaren web orrian, edo etorkizunean hura ordezkatzeko duen kasuko orrian.

4. artikulua. Aurkezpena.

1. Bankuek beren bezeroei informazioa emateko darabiltzaten estandar arrunten arabera aurkeztuko da informazioa, betiere ahalbidetuz erakutsitako datuen ulergarritasuna, bai eta kontuak arloka eta kontuen organo titularren arabera antolatuta egotea ere.

2. Kontuen banku-laburpenen datuetarako irispidea egokituko zaio, segurtasunaren eta elkarrengarritasunaren arloetan, honako hauek xedatuari: Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua eta Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretua.

5. artikulua. Formatua.

1. "Datu ireki" formatuan egonen dira argitaratutako datu guztiak, halako moduan non Administrazioak ez diren hirugarren pertsonak behera kargatzeko, berriz erabiltzeko eta berriz banatzeko moduan egonen baitira.

2. Hori guztia eginen da honako hauek ezarzen dutenaren arabera: urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretua, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionala arautzen duena, urriaren 24ko 1495/2011 Errege Dekretua eta apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzekoa.

6. artikulua. Erantzukizuna.

1. Departamentu bakoitzeko idazkaritza nagusi teknikoei edo gisako organoei dagokie zaintzea foru lege honetan ezarritako manuak betetzen direla, beren kontu berekiei eta lege honen aplikazio-esparruan haien menpe dauden erakunde publiko, agentzia eta gainerako entitateenak diren kontuei dagokienez.

2. Diruzaintza-eginkizunak betetzen dituen organoak foru lege honetan xedatutakoaren arabera emanen ditu existitzen diren kontu eta kutxa guztiei buruzko datuak.

Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea erregelamendu bidezko garapena egiteko.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan bere eskumenen esparruan, foru lege honetan xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko, ezertan eragotzi gabe honen aplikazio-esparruan sarturik dauden instituzioek, entitateek eta erakundeek daukaten betebeharra, kasuko neurriak hartzekoa, bakoitzak bere eskumen-esparruan legearen manuak betetzera zuzenduak.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

1. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

2. Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean, publiko eginen dira aplikazio-esparru subjektiboan definitutako entitateen titulartasuna daukaten kontu guztiak, bai eta bakoitzaren bankuentitatea, kontua irekitzeko baliatu zen identifikazio fiskaleko zenbakia eta saldoa ere, zeina hileru gaurkotuko baita, harik eta hurrengo idatz-zatian adierazten diren datuak kontsultatzen ahal diren arte.

3. Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hiru hilabeteko epean, beharrezkoak diren bitartekoak ezarriko dira, irispidea izatekoak foru lege honen esparru objektiboan jasotzen diren kontuetako bakoitzaren laburpenetara eta horietan gertatzen diren mugimenduetara.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Estellerriaren garapen ekonomiko eta sozialaren egoerari eta etorkizunari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko jabeldura, Estellerriaren garapen ekonomiko eta sozialaren egoerari eta etorkizunari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Lizarrako Merindade historikoaren lurraldean 73 udalerrri daude. Bertako bizigune nagusia Lizarra da, eta mugak ditu Urbasako mendilerroa, Goñi, Azagra eta Viana. 60.000tik gora biztanle ditu –Nafarroako populazioaren % 10–, berariazko beharrianak eta erreibindikazioak dituztenak, bertako enpresek eta erakundeek bezala.

Azken urteetan eskualde horretan nabarmena izan da atzerakada ekonomikoa –eta, beraz soziala ere bai–, Nafarroako gainerako tokietan bezala, baina nabarmenagoa izan da zenbait ikuspegitik, oinarritzko azpiegitura batzuk ez egoteagatik. Horrek berak gaur egun zaildu egiten die Estellerriko herritarrei krisialditik ateratzea, eta bertan diren enpresei hazkunde egokia izatea galarazten die, eta era berean galarazten du lurraldean industria, negozio edo zerbitzu berriak ezartzea.

Azken urteetan garapen ekonomikorako hainbat ekimen abiarazi dira. Azpimarratzekoa da landa garapenari buruzko diagnostikoa, Estellerriaren landa garapenerako TEDER Partzuergoak prestatutakoa. Beste erakunde batzuek ere, esate baterako LASEMEk, mankomunitateek, udalek eta bestelako erakunde eta elkarte batzuek, garapena hartu dute beren arretaren jomuga. Hala eta guztiz ere, energia banaketari, telekomunikazioei, errepi-deei, industriari eta garapen ekonomikorako oinarritzko zerbitzuei dagozkien problema nagusiak ez dira inondik ere konpondu, eta denboran zeharreko iraunkortasuna behar dute.

Jabelduraren testua:

Nafarroako Gobernuarentzako jabeldura, Estellerriaren garapen ekonomiko eta sozialaren egoerari eta etorkizunari buruzkoa.

Iruñean, 2016ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Guzmán Miguel Garmendia Pérez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Etxebizitza Alokairuko Poltsan sartzeko baldintzak alda ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Etxebizitza Alokairuko Poltsan sartzeko baldintzak alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Etxebizitza Alokairuko Poltsarako irispide-baldintzak alda ditzan.

Nafarroan lurralde-desoreka handiak daude gaur egun, eta Nafarroako Gobernuaren zeregina da Nafarroaren ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza indartzera bideratutako bere jarduna garatu eta jarraitzea. Aipatu indartze hori lortzeko, ezinbestekoa da etxebizitzaren arloko politika, beste jarduketara-esparru askoren artean.

Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Alokairuko Poltsaren programak dituen helburuetako bat da hutsik dauden etxebizitza erabiliak higiezin merkatuan txertatzea eta alokairuko etxebizitzaren parke publiko bat sortzea, prezio eskuragarriak edukita. Horrek onurak ekarriko ditu etxebizitzaren jabeentzat zein horien errentarientzat.

Nasuvinsa enpresa publikoak kudeatzen duen Alokairu Poltsa horretan etxebizitza bat, librea zein babestua, eskaini ahal izateko, frogatu behar zen hutsik egon zela gutxienez ere urtebetez, horrela arautzen baita Etxebizitza Izateko Eskubideari

buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikuluan eta erregelamenduzko garapenean, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 76. eta 77. artikuluetan. Gainera, Alokairu Poltsan halaber zehazten dira bertan sartzen ahal diren herriak, etxebizitza babesturako eskaeraren arabera.

Edonola ere, Nafarroako Gobernuak Nasuvinsari noiznahi ipini ahal dio ardurapean alokairu poltsan sartu beharreko etxebizitzaren errentamendua, lehenago ezarri diren zonak handituz, nahiz eta baldintza gisa eskatzen den, Nasuvinsak etxebizitza bat alokairu poltsan sartzeko onartzeko, etxebizitza dagoen udalerrian gutxienez ere 20 pertsona agertzea etxebizitza-eskatzaile gisa, eskatzaile-eroldan inskribaturik.

2016ko otsailaren 8an, Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen baldintza erraztuak ezarri zituela alokairu babestuko poltsaren bidez etxebizitzak eskaintzeko, era horretan higiezin gehiago lortu eta erantzun ahal izateko etxebizitza babestuaren eskatzaileen eroldan izena emandakoengandik zegoen alokairu-eskaera gero eta handiagoari.

Egun horretatik aurrera, hutsik emandako gutxieneke epearen baldintza ez da beharrezkoa Iruñerriko hamabost herritan dauden higiezinertarako (Aitzoain, Antsoain, Artika, Barañain, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Gorraiz, Uharte, Mutiloa, Olatz, Iruña, Sarriguren, Atarrabia eta Zizur Nagusia), eta beste zortzi herritan, horiek ere Iruñerrikoak baitira (Arre, Beriain, Zizur Txikia, Cordovilla, Ezkirotz, Noain, Orkoien eta Ororbia), beharrezkoa izanen da etxebizitza libreak hutsik egon izana hiru hilabetez gutxienez ere, haien jabeek alokairu poltsa horretan sartzeko eskaria egin aurretik.

Nafarroako Gobernuak ez du zehazten herri batzuen eta besteen arteko diferentzia ezartzeko irizpiderik, eta irizpide arrazoizkorik ere ez dago alokairu poltsan sartzeko aukera hori herri jakin batzuei bakarrik emateko; horiek horrela, eskubide desberdintasun bat ezartzen da, hala etxebizitzaren jabeentzat nola errentarientzat; izan ere, alde batetik daude alokairu poltsan egonik etxebizitzaren gutxieneke hutsaldia eskatzen ez duten herriak; bestetik, alokairu poltsan egonik etxebizitza gutxienez hiru hilabetez hutsik egotea eskatzen duten herriak; eta, azkenik, alokairu poltsan ez dauden herriak.

Nafarroako Alderdi Sozialistaren iritziz, desberdintze-irizpide hori bidegabea da gaur egun alokairu poltsan ez dauden herrientzat (poltsa hori Iruñerrian baino ez dago), eta biztanleendako (hala etxebizitza-jabeendako nola errentariendako) aukera-berdintasunaren irizpidetik aldentzen da; bereziki, etxebizitza-eskatzaile kopuru jakin bat oso nekez gaindituko duten herrietan. Halaber, landa eremuen garapenaren aurka doa.

Horregatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nasuinsaren alokairu poltsan sar ditzan Nafarroako Foru Komunitateko herri guztiak, kontuan hartu gabe etxebizitza-eskatzaileen eroldan inskribatuetatik zenbat bizi diren herri bakoitzean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etxebizitzaren gutxienezko hutsaldiari buruz alokairu poltsan sarturiko herriek dituzten irizpideak homogeneousizatu ditzan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 19an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Beriaingo Ikastetxe Publikoaren egungo egoerari eta ikastetxe bat eraikitzearen komenigarritasunari buruz.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan Beriaingo Ikastetxe Publikoaren egungo egoerari eta ikastetxe bat eraikitzearen komenigarritasunari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

2014ko apirilaren 8an, orduan Nabai, Bildu eta IE osatzen genituen parlamentu-taldeen mozio bat aurkeztu genuen Beriaingo ikastetxe publikoaren instalazioen egoera zela-eta, eta batzorde honek onetsi egin zuen.

Instalazioen narriadura handia zela eta, aipatu mozioan Nafarroako Gobernua premiatzen zen azterlan bat egiteko, hiru hilabeteko epean, jakiteko ea egungo eraikina mantentzea komeni zen ala ikastetxe publiko berri bat eraikitzea, eta egitea erabakitzen zen jarduketan egutegia ezartzeko.

Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen zen instalazioen egoera duin bat bermatzeko, zein ere ziren egindako azterlanaren konklusioak, Beriaingo ikastetxe publikoaren gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanez.

Mozioaren lehen puntua aho batez onetsi zen, alde zuzenetik onetsita UPNren zuzenketa, aldeko bozaren baldintza gisa jartzen baitzuen azterlana egiteko epea hiru hilabetekoa izan ordez sei hilabetekoa izatea. Bigarren puntua ere onetsi zen, baina UPNk emandako aurkako botoarekin.

Bederatzi hilabete geroago, Nafarroako Gobernua bete txostena egin zuen, eta Beriaingo Udaltzaia eskuratu zuen arazo horren konponbidea.

Gure ustez, Nafarroako Gobernu berriak, 2015eko maiatzeko hauteskundeetatik sortutakoak, gai hori berreskuratu behar du eta konponbide bat bilatu, ahalik eta azkarren.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean azterlan fidagarri bat presta dezan Beriaingo ikastetxe publikoaren egungo egoerari eta ikastetxe berri bat eraiki ala ez eraikitzearen komenigarritasunari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du instalazioen egoera duin bat

asumi eta berma dezan, Beriaingo ikastetxe publikoaren egungo gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanez.

3. Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen dugu egitea erabakitzen den jarduketan egutegia ezar dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 20an

Foru parlamentariak: María Solana Arana, Miren Aranoa Astigarraga, Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kendutako aparteko ordainsaririk falta dena ordain dezan.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kendutako aparteko ordainsaririk falta dena ordain dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen 2015eko urriaren 8ko Osoko Bilkuran, zeinak ezartzen baitzuen Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileek 2012ko aparteko ordainsaria kobratuko dutela eta % 1 igoko zaiela solda-

ta, Espainiako gainontzeko administrazio publikoetako langileei bezala.

2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen 35. xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du: “[...] 2012an kendutako aparteko soldatatik ordaintzeko dagoen zatiaren itzulketak lehentasunezkoak izanen dira” aurrekontu-zenbatekoa igotzerakoan, “diru-sarrerei buruzko aurreikuspenek horretarako bidea ematen badute”.

Bestalde, Ogasuneko kontseilariak iragan apirilaren 14ko Osoko Bilkuran adierazi zuen diru-bilketa ongi doala.

Apirilaren 19an –asteartea baitzen–, Espainiako Gobernuak iragarri zuen Estatuko Administrazioako langileek apirilari dagokion nominan berreskuratuko dutela kendutako aparteko ordainsaririk falta dena.

Onartezina da Foru Komunitateko langileak Espainiako gainerako langileak baino egoera okerragoan egotea; halakorik ez da Nafarroan inoiz gertatu.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2012an kendutako aparteko ordainsaririk falta dena apirileko nominan ordain dezan, Nafarroako enplegatu publikoak beste administrazio publiko batzuetakoak baino baldintza okerragoetan ez jartzeko.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du kolpe militarren eta ondorengo diktadura frankistaren biktima guztiekiko bere elkartasuna.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu kolpe militarren eta ondorengo diktadura frankistaren biktima guztiekiko bere elkartasuna.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Espainiako Justizia Ministerioak, Argentinaren eta Espainiako Erresumaren arteko Zigor arloko estradizio eta laguntza judizialari buruzko Ituna urratuz, entzungor egiten dio Buenos Airesko Krimen eta Zentzategi arloko 1. Epategi Federalaren exhortoari –epategi horrek izapidetzen du Frankismoaren aurkako Argentinaren Kereila izenez ezagutzen dena–; hartara, baliteke prebrikazio-delitu bat egiten ari izatea.

Argentinako epaitegiaren exhortoak, otsailaren 18an bideratu eta Espainiako Gobernuari martxoaren 9an emanak, ezartzen du galdeketa egin behar zaiela diktadura frankistan zehar gertatutako zenbait gertakari direla-eta inputatutako 19 per-

tsionari. Martxoaren 31n, Espainiako Justizia Ministerioari eskatu zitzaion Argentinako epaitegiak agindutako exhortoa edo erregu-eskaera bete zezan eta, horrenbestez, Auzitegi Nazionaleko Instrukzioko Epategi Zentralen Dekanotzari berehala igor ziezaion exhortoa, izan beharreko legeondorioak izan zitzan. Erantzunik jaso ez denez, bertan behera gelditu da M^a Servini de Cubría epaileak eta Buenos Airesko epaitegiko lantalde juridikoak diligentsia horietarako aurreikusita zeukaten bidaia, apirilaren 4tik 22ra bitarte egin beharrekoa.

Espainiako Estatuak eta Argentinak sinatutako aldebiko itunaren urraketa larri eta nazioarteko legedi indarduna aplikatu ez dela ikusita, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

“1. Nafarroako Parlamentuak jendaurrean adierazten du kolpe militarren eta ondorengo diktadura frankistak eragindako biktima guztiekiko bere elkartasuna.

2. Egungo Espainiako Gobernuaren eta Justizia Ministerioaren jarrera gerorazale eta oztopatzaillea salatzen dugu; izan ere, luzamendutan eta oztopoak jartzen aritu dira frankismoan gertatutako zenbait krimenen ustezko arduradunei ikerketa-deklarazioak hartu eta zenbait diligentsia egite aldera orain arte egindako errekerimenduei erantzuterakoan.

3. Espainiako Estatuko Gobernuari –gaur egungoari eta etorkizunekoari– exijitzen diegu giza eskubideei buruzko nazioarteko araudia errespetatu eta ardura osoz bete dezaten, bai eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea bere errelatore berezien bidez urterik urte egiten ari den gomendio guztiak zorrotz bete ditzaten ere”

Iruñean, 2016ko apirilaren 20an

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Dabid Anaut Peña, Rubén Velasco eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da egoki iritzitako neurri guztiak susta ditzan funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztien erabateko doakotasuna eta unibertsaltasuna lortzeko.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita egoki iritzitako neurri guztiak susta ditzan funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztien erabateko doakotasuna eta unibertsaltasuna lortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Podemos-Ahal Duguren erreibindikazioetako bat da funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztien doakotasuna eta unibertsaltasuna, herritar guztien benetako berdintasuna bermatzeko.

Itunpeko ikastetxeetan irakaskuntzaren doakotasuna saihestu egiten da, askotan, halako moldean non familiek "borondatezko" ekarpen batzuk egin behar izaten dituzten ikastetxeak sostengatzeko. Ekarpene horien mozorroa izan ohi da eskolaz kanpoko jardueretarako ordainketa, eskola-materiala establezimendu jakin batzuetan derrigorrez erostea, noizbehinkako ekarpen bereziak, eta abar.

Itunpeko ikastetxeetako azpiegiturak hobetzeko gogo hori, laudagarria baina irregularra ere bai, ezin zaio nagusitu funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxeetako irakaskuntzaren doakotasunaren printzipioari. Izan ere, ez da gutxitan gertaturiko kontua ikastetxe horietako gurasoen

aurkeztutako salaketa anonimoen ondorioz zeha-penak ezarri izana.

Horiek horrela, funts publikoekin sostengatutako ikastetxeetako irakaskuntzaren benetako doakotasuna bermatu eta sustatzeko, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu, legebiltzar honetako Osoko Bilkurak onetsi dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du egoki iritzitako neurri guztiak susta ditzan funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztien erabateko doakotasuna eta unibertsaltasuna lortzeko. Helburu horrekin, eta ezertan ukatu gabe Gobernuak motu proprio harritzeko bestelako neurri batzuk, honakoa eskatzen da:

1. Nafarroako Gobernuak azterlan juridiko bat presta dezan, jakite aldera bateragarria ote den funts publikoekin sostengatutako ikastetxeek modu masiboan edo ohikoan eskatzea "borondatezko ekarpen" izenekoak ikastetxe horietako ikasleentzat; izan ere, ikasle horien eta haien familien datuez eta zerbitzu publiko baten erabileraz baliatzen ari dira fundazio edo elkarte partikularrentzako funtsak eskatzeko. Azterlanak datuen babesari buruzko araudiari dagokiona ere kontuan hartuko du.

2. Eskarera hartzeko epean zein matrikulazio epean, funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztiek familiei eman diezaieten, ezinbestez eta paper-formatuan, Nafarroako Gobernuak prestatutako informazio bat, zeinetan ezagutaraziko den ikastetxe publiko eta itunpeko pribatu guztien doakotasunari buruzko legedi eta araudi indarduna; bai eta, legedi horren ondorioz: ·

– Ikastetxe horiek ezin izanen dietela familiei inoiz ere eskatu, ez eta haiengandik jaso ere, dirukantitatearik doako irakaskuntza hartzearen truke, ez eta ekarpenik exijitu ikaspostuaren erreserbako matrikularen kontzeptuan.

– Halaber, familiei ezin izanen dietela ezarri inolako fundazio edo elkarteren aldeko ekarpenak egiteko betebeharririk.

– Ezin izanen dela exijitu eskola-materiala ikastetxean berean edo establezimendu jakin batzuetan erosterik.

3. Funts publikoekin sostengatutako ikastetxeen webgune guztien orri nagusian eta Hezkuntza Departamentuaren webgunean ikusgai egon dadin 2. puntuko informazioa.

4. Funts publikoekin sostengatutako ikastetxeek, "borondatezko ekarpenak" eskatu nahi badiutuzte, ikasturte bakoitzean egin dezaten, idatzizko eskabide baten bidez, bertan adierazita ekarpena erabat borondatezkoa dela, familiek sinatuko dutena, beren baimen-ematearen frogagarri. Halaber, eskabidean adierazi beharko da noiznahi erretiratu ahalko dela ekarpen horretarako baimena.

5. Ikuskapen Plan berezi bat abian jar dadin, funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztien benetako doakotasuna ziurtatzeko eta, beraz, "borondatezko ekarpen" izeneko prozesua gain-

begiratuko duena, horrelako ordainketak eskatzen dituzten ikastetxe guztietan.

6. Funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan kartel bat jar dadin, bere neurriak eta fardako kokapena direla-eta erraz ikusiko dena, eta esplizituki adieraziko duena "funts publikoekin sostengaturiko doako ikastetxe bat" dela.

7. Hezkuntza Departamentuak erreklamazio-bulego bat abian jar dezan, arreta emanen diena ekarpen horiek behartuta ordaintzen dituztela josten duten ikasleen familiei. Bulegoa eta horrekin harremanetan jartzeko modua iragarri egingen dira funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, NUPeko errektoretza-taldea premiatzen da ez dezan ken seihtilerako matrikula Nafarroako Unibertsitate Publikoan, ez dezan ezar sekuentzialtasun-formula eta tasa akademikoak berrikus ditzan.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez NUPeko errektoretza-taldea premiatzen baita ez dezan ken seihtilerako matrikula Nafarroako Unibertsitate Publikoan, ez dezan ezar sekuentzialtasun-formula eta tasa akademikoak berrikus ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gobernu Kontseiluak, 2009ko uztailaren 1ean egindako bilkuran (A46/2009), gradu eta master ikasketa berriak arautuko zituen lehen araudia onetsi zuen, "Bologna Plana" izenekoaren ezarpenerako bere burua prestatuz hartara. Arau horren 33. artikulua eta hurrengoek zehazten dituzte ikasleak matrikulatzeko baldintzak; halatan, arauak seihtileko eredu bat definitzen du, Europako unibertsitate gehienek bezala, eta Estatukoaren artean nabarmendu egiten da ikasleendako sistema onuragarria edukitzeagatik.

Arau horrek aldaketak izan ditu, NUPen errealtatera egokitze aldera; bereziki, krisi egoerara eta

aurrekontu-murrizketetara egokitze aldera; izan ere, horien eraginez murriztu egin da Unibertsitatearen nahiz ikasleen jardute-ahalmena, hala-ko moduan non 2013tik aitzina bi sistema baitaude aldi berean; bata, urtekoa, eta bestea, berriz, seihtilekoa; irizpidea da ikasleek seihtilekoen osagarritasuna aprobetxatzeko aukera izatea eta beren ikasketa-planak malgutasun handiz egin ahal izatea.

Ikasleen Kontseiluaren Osoko Bilkurak hartutako 1-2016 akordioa kontuan hartuta, eta ikusita, NUPeko errektoretza-taldearen jarrera ezagutu ondoren, desagertze-arriskua dagoela seihtilekorako matrikula desagertzeko, matrikularen sekuentzialtasuna ezartzeko eta gradu-ko titulazioen zeharkakotasuna amaitzeko, Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak NUPeko errektoretza-taldea premiatzen du ez dezan ken Nafarroako Unibertsitate Publikotik seihtilekorako matrikula eta azterlan bat egin dezan seihtilekorako matrikula unibertsitate-ikasketa guztietara orokortzearen onurei eta egokitasunari buruz, sistema horrek errendimendu akademikoa malguga egiten eta hobetzen duen aldetik.

2. Nafarroako Parlamentuak NUPeko errektoretza-taldea premiatzen du ez dezan ezar "sekuentzialtasun-formula", horrek ekarriko lukeelako norbanakoaren prestakuntza-ibilbideen malgutasuna murriztea eta ikasleek gehiegizko esfortzu bat egin behar izatea, bai akademikoa, bai ekonomikoa.

3. Nafarroako Parlamentuak NUPeko errektoretza-taldea eta Hezkuntza Departamentua premiatzen ditu NUPeko tasa akademikoak berrikus ditzaten eta tasa horiek murriztu daitezen lehen, bigarren eta ondorengo matrikulak egin ahala.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baititu “Gatazkarik gabeko Teknologia” kanpaina eta mineralen merkataritzari buruzko etorkizuneko europar araudia dela-eta Europako gizarte zibilak egiten dituen erreibindikazioak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu “Gatazkarik gabeko Teknologia” kanpaina eta mineralen merkataritzari buruzko etorkizuneko europar araudia dela-eta Europako gizarte zibilak egiten dituen erreibindikazioak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuia premiatzen du arlo horretan aitzindaria dela erakutsi dezan, eta hartara babes dezan arduratasun egokiko sistema bat, legearen barruko mineralen horniketa-katean parte hartzen duten enpresa guztientzat derrigorrezkoa izanen dena.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuia premiatzen du babes dezan ELGE-Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak egi-

niko “Gatazkan dauden Mineralen Diligentzia Egokiko Gidan” jasotako gomendioen arabera araudi bat:

a. Diligentzia egokiari lotutako betebeharrak guztiak ELGEren estandarren arabera direla ziurtatuz.

b. Legearen aplikaziopean sartutako araudi honen barruko mineralak Europako merkatuan lehen aldiz sartzen dituzten enpresa guztiak, bai mineralak lehenengo gisa sartzen badituzte, bai produktu bukatuetan sartzen badituzte.

c. Legearen testuan ELGEk proposatutako estandarren izaera progresiboa eta malgutasuna islatzen duen hizkera bat erabiliz”

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baititu 2016ko apirilaren 19an Burlatan egindako atxiloketak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu Burlatan egindako atxiloketak, eta adierazten du inolako zentzurik gabeko operazio politiko bat dela, zeinaren helburu bakarra baita torturaren aurkako salaketa isilaraztea.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, zeharo eta guztiz larria da Gobernuaren Nafarroako

ordezkari Carmen Albaren jokabide hertsiki politikoa, beste behin jardun baitu nafar herritarren eskubide zibilak eta adierazpen-askatasuna urratuz, eta berehala dimiti dezan exijitzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die operazio honek ukitutako pertsonari, Burlatako alkateari eta Udalari, bai eta torturak pairatu dituzten pertsonari ere”

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu 2013ko abenduaren 12an onetsi zuen adierazpen instituzionala, erakunde publikoak premiatzen zituena Nafarroako etxeetan ETBren emisioak ikusi ahal izatea ahalbidetu zezaten.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1 Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du legebiltzar honek 2013ko abenduaren 12an onetsitako adierazpen instituzionala, erakunde publikoak premiatzen zituena Nafarroako etxeetan ETBren emisioak ikusi ahal izatea ahalbidetu zezaten.

2 Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Foru Komunitateko herritarrek informazio askerako oinarriko eskubidea daukatela.

3 Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurri guztiak har ditzan legearen barruan, nafar herritarrek ETBren kanalak hartzeko daukaten eskubidea bermatze aldera; eta beharrezkoak diren jarduketak

guztiak egin ditzan eskubide hori eragozten saiatzen diren neurri guztiak ekiditeko.

4 Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du nafar herritarrek informaziorako duten eskubidearen nagusitasuna berma dezan, eta ez dezan inolako neurri prebentiborik har eskubide hori murriztea dakarrenik; ez, behintzat, aurreko Nafarroako Gobernuak jarritako salaketa ebatzi arte.

5 Nafarroako Parlamentuak erakunde eta alderdi politiko guztiak premiatzen ditu erabateko leialtasun instituzionalaz joka dezaten, nafar herritarren interesari eta ongizateari eragiten dien informazioa konpartituz, alderdikeriaren interesen gainetik”

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin, eta adierazten du laneko arriskuen prebentzioa, hala istripuei nola lanbide-gaixotasunei dagokienez, zerbitzu publiko bat eta beharrezko inbertsio bat dela; bai eta langileen eskubide bat ere, ezin dena urratu krisia aitzakia hartuta.

2. Nafarroako Parlamentuak agertzen du bere borondatea dela mekanismo egokiak ezar daitezzen azpimarra berezia jartzeko kolektibo ahulenetan eta gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan daudenetan, zeinek sarritan arrisku handiagoa

baitute lan-istripuak eta lanbideari lotutako osasun-arazoak pairatzeko, segurtasun gutxiko lanak onartzera behartuta egoten baitira kasu askotan.

3. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna agertzen die lan istripuen eta lanbide-gaixotasunen biktima izandako langileei, eta adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak har ditzala hartu beharreko kudeaketa- eta ikuskapen neurriak, gertatzen diren lan istripu nahiz gaixotasun profesional oro zorrozki deklaratu daitezzen halakotzat.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua animatzen du benetako politika aktibo bateranzko aurrerapausoak eman ditzan lan arriskuen prebentzioaren arloan, eta horretarako behar diren baliabideak jar ditzan.

5. Nafarroako Parlamentuak berresten du Mutuen Legearen aurka dagoela, de facto dakarrelako langileen osasunerako eskubidea murriztea eta pauso bat gehiago ematea osasun-sistemaren pribatizazioan. Halaber uste du mutualitate patronalen baliabideak eta eskumenak publikoak

izan beharko liratekeela, Europako gainontzeko herrialdeetan orain dela zenbait hamarkadatik aurrera gertatu den moduan”

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten baitu osasunaren babesarekin eta Konstituzioan osasuna eskubide subjektibo gisa jasotzearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du osasunaren babesarekin, Konstituzioan osasuna eskubide subjektibo gisa jasotzearekin eta horretarako behar adinako finantzaketa bermatzeko mekanismo bat ezartzearekin, ez dadin berriro posible izan atzerapausorik ematea.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Osasun Sistema Nazionala gobernantza on baterako eta autonomia erkidegoen arteko lankidetzarako egiturez hornitzea, sistemaren kalitatea hobetzeko eta efizienteagoa, etikoagoa eta gardenagoa bihurtzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak agertzen du irispide-baldintzetan dauden ezberdintasunak eta oztopoak murriztuz egiazko berdintasuna lortze aldera lan egiteko borondatea.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du Osasun Sistema Nazionala modernizatu beharra dagoela; izan ere, beharrezkoak dira berritze teknologikorako, garapen profesionalerako, ikerkuntzarako eta laguntza-prozesuen eraldaketarako konpromisoa eta baliabideak, baldin eta berrikuntza terapeutikoren, zahartze osasuntsuaren eta kronikotasunaren erronkei erantzunen bazaie”

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Reina Sofía Ospitaleko larrialdi zerbitzuan 2016ko apirilaren 18an gaixoei emandako zerbitzuari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Reina Sofía Ospitaleko larrialdi zerbitzuan 2016ko apirilaren 18an gaixoei emandako zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Atzo, apirilak 18, Tuterako Reina Sofía Ospitalean gehiegizko itxaronaldia pairatu behar izan zen, kaltetutako zenbait herritarren esanetan, gaixoen osasun-laguntzari eta ospitaleratzeari zego-kienez.

Lekukotasunen arabera, korridoreetan ohe eta gupil-aukietan itxaron behar izan zuten.

Hori guztia dela-eta, Osasun Departamentuari honako hau galdetzen diogu:

1.- Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan zergatik luzatu zen itxaronaldia, kaltetuek diotenaren arabera, apirilaren 18an?

2.- Zergatik itxaron behar izan zuten korridoreetan, kaltetuek diotenaren arabera, ospitaleratu arte?

3.- Egia al da, kaltetuek diotenaren arabera, arrazoia izan zela ospitaleratu beharreko solairuetan ez zegoela oherik libre? Ezezkoan, zer arrazoi egon zen ospitaleratzea albait lasterren ez egiteko?

Corellan, 2016ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, A-68 autobideko 83. eta 116. kilometro-puntuen artean nekazariak beren lurretara iristeko sarbideei buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako galdera, A-68 autobideko 83. eta 116. kilometro-puntuen artean nekazariak beren lurretara iristeko sarbideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

A-68 autobidearen egoera irregularra denez 83. eta 116. kilometro-puntuen artean, Nafarroako Gobernuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak erabaki zuen autobidearen sarbide irregularrak ixtea; horien artean, zorioneko Institutuko Bidea.

Itxiera martxoaren 14an hasi zen egiten, nahiz eta Tuteran hil honen 10ean –osteguna– egindako agerraldi publikoan jakinarazi zen obrak bi asteren buruan hasiko zirela.

Asteazkenean, hilak 16, A-68aren seinalezta-pena aldatzen ere hasi ziren, eta nekazaritza-

ibilgailuei bide horretara sartzea eragotzi zitzaizen, nahiz eta hori ofizialki baimenduta zegoen 2002an ireki zenez geroztik, ez baitzegoen sartzea debekatzeko seinalerik.

Nekazariari zenbait auzi planteatzen zaizkie orain, hasierako proiektutik datozenak:

– Autobia bat egitean, zerbitzu-bideak gaitu behar dira beti, bide horrekin muga egiten duten finkei sarbide iraunkor bat emateko.

– A-68an sekula ez ziren behar bezala egin zerbitzu-bideak, eta horregatik baimentzen zen nekazaritza-ibilgailuen zirkulazioa.

Sarbide horiek itxi direlarik:

Zer neurri hartu da edo hartuko da nekazariak beren lurretara sartzearen auzia konpontzeko? Izan ere, Tuteran, une honetan, traktoreek hiria gurutzatu beharko dute, eta Fontellasan, berriz, erabat itxi zaie bidea, halako moduan non egoera jasanezina baita.

Noiz, nola eta zertan oinarrituta erabaki zen baimen horiek mugatzea, baldin eta ez badago nekazaritza-sektoreari arazoa konpontzeko dion ordezkotza-planik? Ez gara ari lau pertsonari eta lau pertsona horien baratzetara buruz. Nafarroan harrotasunez darabilgun nekazaritza elikagaien industriari buruz ari gara.

Gure ustez, esku-hartzeak alde aurretik jakinarazi behar dira, baldin eta eragin zuzena badaukate herri batean edo gehiagotan edo hain garrantzitsua den sektore batean. Abisatu al zitzaizkizue?

Iruñean, 2016ko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamorro

Galdera, “Panamako paperei” buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, “Panamako paperei” buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakion:

Orain dela egun gutxi lehertu da azkenaldi honetako finantza-eskandalu handiena izatera hel daitekeena, “Panamako paperak” izenez ezagutzen dena.

Mundu osoko 300 kazetari baino gehiagok parte hartu dute paradisu fiskalen gaineko nazioarteko ikerketa sakon batean, zeinaren bidez kaleratu baitira offshore merkataritza-sozietateei buruzko 11,5 milioi dokumentu, gisa horretako sozietateak sortzen espezializatutako Mossack Fonseca abokatu-bulegotik heldu direnak.

“Panamako paperak” izeneko horiei buruz argitaratu diren albisteak ikusita, Ogasuneko eta

Finantza Politikako Departamentuak iragarri du Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari eskatuko diola haren esku dagoen informazio guztia eman diezaion, argitze aldera ea balizko iruzurren batek Foru Ogasunarekin zerikusirik ote daukan.

Zehazki, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari informazioa eskatuko zaio eta informazio hori Foru Ogasunaren fitxategiekin alderatuko da, detektatze aldera ea egoitza fiskala Nafarroan daukan edo Foru Ogasunarekiko betebeharririk daukan zergadunik badagoen.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

– Jaso al da jada Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren informaziorik “Panamako paperak” izenekoetan jasotako dokumentuen artean ageri den inolako pertsona fisiko edo juridikori buruz?

– Ogasun Departamentuak ba al du asmorik egoitza fiskala Nafarroan daukaten eta Panaman ondasunak eta errentak dauzkatela jada adierazi duten pertsonen ondasunei eta errentei buruzko aitopenen erkatzeko eta ikertzeko, aitopenen egiazkotasuna eta ondasun nahiz errenten jatorria egiaztatze aldera?

– Baldin eta, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak edo beste erakunderen batek igorrita nahiz Ogasun Departamentuak berak egindako ikerketaren baten bidez, egoitza fiskala Nafarroan daukaten pertsonen buruzko informaziorik lortzen bada, “Panamako paperak” izenekoekin lotura duenik, ba al du Ogasun Departamentuak asmorik paper horiekin zerikusia duten pertsonen zerrenda jendaurrean paratzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Tuterako Osasun Barrutian 2010etik 2015era egindako inbertsioari buruzkoa.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Osasun Barrutian 2010etik 2015era egindako inbertsioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Zein izan da Tuterako Osasun Barrutian 2010etik 2015era egindako inbertsioa?

– Inbertsio osoa, urtez urte.

– Inbertsioen eta haien kostuaren xehetasunak.

Tuteran, 2016ko apirilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Galdera, hizkuntza- eta zientzia-gaitasunak direla-eta Hezkuntza Departamentuak eginen dituen proba diagnostikoei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, hizkuntza- eta zientzia-gaitasunak direla-eta Hezkuntza Departamentuak eginen dituen proba diagnostikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Hezkuntza Departamentuak zer proba diagnostiko eginen ditu hizkuntza-gaitasunei (gaztelania, ingelesa eta euskara) eta zientzia-gaitasunei dagokienez, Hezkuntzako ministroarekin iragan apirilaren 18an izandako bileraren ostean iragarri duen bezala?

Corellan, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi darabilen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi darabilen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto

Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Hezkuntzako kontseilariak bilera bat egin zuen Hezkuntzako ministroarekin iragan apirilaren 18an, zeinetan adierazi baitziren Hezkuntza Departamentuaren asmoa dela Lehen Hezkuntzako 6. mailako ebaluazioa ez egitea.

Hori dela-eta, honako galdera honi erantzutea nahi dugu:

Hezkuntza Departamentuak zer arrazoi darabil aldebakartasunez erabakitzeke Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egitea?

Corellan, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, atzerriko hizkuntzetan C1 maila daukaten irakasleentzako lanpostuetarako deialdia egin ahal izateko araudi-aldaketari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, atzerriko hizkuntzetan C1 maila daukaten irakasleentzako lanpostuetarako deialdia egin ahal izateko araudi-aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Hezkuntzako ministroak zer erantzun zion Hezkuntzako kontseilariari iragan apirilaren 18an egindako bileran, atzerriko hizkuntzetan C1 maila daukaten irakasleentzako lanpostuetarako deialdia egin ahal izateko araudi-aldaketari dagokionez?

Corellan, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Lan-eskaintza Publikoko desorekak konpontzekoa den funtzionario erretiratuen ordezkatzeko-tasa dela-eta Hezkuntzako kontseilariak egindako eskariari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Lan-eskaintza Publikoko desorekak konpontzekoa den funtzionario erretiratuen ordezkatzeko-tasa dela-eta Hezkuntzako kontseilariak egindako eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Hezkuntza Ministerioak zer erantzun zuen Hezkuntzako kontseilariarekin iragan apirilaren 18an egindako bileraren ostean, Lan-eskaintza Publikoko desorekak konpontzekoa den funtzionario erretiratuen ordezkatzeko-tasa dela-eta Hezkuntzako kontseilariak egindako eskariaren aurrean?

Corellan, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Lanbide Heziketako erdi mailatik goi mailara igarotzea, titulazioa eta sarbidea, Batxilergoko 2. maila errepikatzea eta DBHko 4. mailako ibilbideak direla-eta Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntzako ministroari egindako eskariari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Lanbide Heziketako erdi mailatik goi mailara igarotzea, titulazioa eta sarbidea, Batxilergoko 2. maila errepikatzea eta DBHko 4. mailako ibilbideak direla-eta Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntzako ministroari egindako eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

– Hezkuntzako kontseilariak zer eskari-mota egin zion Hezkuntzako ministroari iragan apirilaren 18an egin zuten bileran, Lanbide Heziketako erdi mailatik goi mailara igarotzea, titulazioa eta sarbidea; Batxilergoko 2. maila errepikatzea; eta DBHko 4. mailako ibilbideak direla-eta?

– Zein izan zen ministroaren erantzuna?

Corellan, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakitekoa ea zer txosten tekniko eta juridikotan oinarrituta hartu duen Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko erabakia.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea zer txosten tekniko eta juridikotan oinarrituta hartu duen Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat LOMCEk ezartzen duen ebaluazioa ez egiteko erabakia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Hezkuntza Departamentua zer txosten tekniko eta juridikotan oinarritu da LOMCEk Lehen Hezkuntzako 6. mailarako ezartzen dituen ebaluazioak ez egitea aldebakartasunez erabakitzeko?

Corellan, 2016ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera